

AIZKORA

Aitor Senosiain eta Jaime Gorriti ere finalean

Koldo Alduntzin | GASTEIZ

Aitor Senosiain eta Jaime Gorriti nafarrek lortu zituzten Euskal Herriko III. Mailako finalean aritzeko beste bi txartel, atzo, Gasteizen. Beraz, horiek biak, eta, Aierbe eta Iriarte dau-de sailkatuta.

Bi txandatan jardun zuten sei aizkolariek. Lehenik, Aitor Senosiain, Mikel Erdozia eta Joxemari Esnaola aritu ziren. Senosiaini eutsiak suertatu zitzaizkion lehen bi kanaerdikoak, eta Esnaola parean izan zuen. Hirugarrenean, ordea, bi minutuko aldea ateratzen zion, eta azkenean, laukoa. Erdozia hasieratik atzeratu zen.

Bigarren txandan, Jaime Gorriti, Pello Etxeberria eta Diego Riaño aritu ziren. Riaño atzean geratu zen, eta Gorritik eta Etxeberriak azkenera arte izan zuten lehia, elkar kontrolatuz jardunda. Bihar azken kanporaketa: Jose Angel Zubiaga, Santiago Olabarria, Esteban Pika-bea, Joxemari Telletxea eta Ernesto Ezpeleta.

SAILKAPENA

1. Aitor Senosiain	11'56"
2. Jaime Gorriti	13'10"
3. Pello Etxeberria	13'24"
4. Joxemari Esnaola	16'02"
5. Diego Riaño	16'58"
6. Mikel Erdozia	19'10"

Biharko kanporaketa

Txapelketa: Euskal Herriko III. Maila.
Hirugarren kanporaketa.
Lekua: Gasteizko Foruen Plaza.
Ordua: 13:00 (bihar).

ARRAUNKETA. Pasai Donibaneko Erreka ontziak irabazi zuen aurreko urteko txapelketa



BASALDUA

Pasai San Pedroko trainerua, aurreko estropada batean. Bigarren txandan irtengo da gaur.

Hamabi ontzi lehiatuko dira gaur Gipuzkoako traineru txapelketan

Orio da faborito nagusia txapela eskuratzeko, Koxtape eta Zumaia-Getariaren baimenarekin

Ramon Basaldua | BILBO

Euskal Liga alde batera utzi eta herrialdeetako eta Euskal Herriko txapelketak jokatu dira aste honetan. Gipuzkoako txapelketa jokatu da gaur Getarian, Bizkaikoa bihar jokatu da Algortan eta Euskal Herrikoa, domekan, Hondarribian.

Hamabi traineru izango dira nor baino nor, gaur, Gipuzkoako txapelketan, hiru txandatan banatuta. Parte hartzaileak hamabi badira ere faboritoen zerrenda askoz laburragoa da. Izan ere, ezusteko handirik ezan, Gipuzkoako txapela, Orio, Pasai Donibane-Koxtape edo Zumaia-Getariarentzat izango da. Gainerako bederatzitza traineruek, aurretik behintzat, ez dute txapela eskuratzeko aukerarik.

Hiru faborito aipatu ditugu baina hiruretatik bat aukeratzekotan garbi dago Orio dela faborito nagusia Gipuzkoako txapelketa irabazteko. Miguel Anjel Lizarralde *Altzerrik* zuzentzen duen traineruak ez du garaipenik lortzerik izan Euskal Ligako azken bi jardunaldietan Castrok aurrea hartu ziolako.

Oriok garaipena behar du

Lekeition eta Getxon nagusitu ondoren, oriotarrek garaipen egarri handia dute eta Gipuzkoako txapelketa irabazteak laisatasuna eta konfiantza eman-go lieke denboraldiko zati erabakigarrian sartzeko atarian. Orio izan da Gipuzkoako traineru onena azken estropadetan eta oriotarrak dira faborito

nagusiak gaur Getarian. Gainera, Getariako estropada eremua bare egonez gero Koxtapek eta Zumaia-Getariak zail izango dute Orioren indarrari aurre egitea.

Koxtape dagokionez, *Errekak* denboratxo darama sailkapeneko urrezko lekuetan agertu barik. Paco Prietoren mutilek garaipen bi erdietsi dituzte denboraldi honetan, Caston Euskal Ligako estropadan eta Pasaian San Inazio egunean. Orain arte, Castro eta Orioren gerizpean dabilta Pasai Donibanekoak. Hala ere, Koxtapek aurreko urteko koadrila indartsua du eta edozein unetan eztanda egingo du. Gainera, ez da ahaztu behar Koxtape dela egungo txapelduna iazko txapelketa irabazi ostean, Do-

Gipuzkoako Txapelketa

Lehenengo txanda: Ur Joko, Hernani, Mutriku, Donibaneko.

Bigarren txanda: San Pedro, Donosti-Arraun, Santiagotarrak, Hondarribia

Hirugarren txanda: Orio, Koxtape, Zumaia-Getaria, Trintxerpe.

Ordua: Arratsaldeko 18:30ean

Lekua: Getaria

nosti-Arraun eta Orioren aurretik.

Faboritoekin amaitzeko, Zumaia-Getaria ezustekoa ematen saiatuko da. Ez dute lan erraza izango baina *Luxia* Olasagastiren mutilak gauza dira txapela eskuratzeko. Ur baretan *Telmo Deun* traineruaren aukerak murriztu egingo lirarteke. Hondarribia ere onenen artean egotea espero da.

Ayuntamiento de Sopelana-ko Udala

ANUNCIO

Aprobado por la Comisión de Gobierno de este Ayuntamiento, en sesión celebrada el día 13 de julio de 2001, inicialmente, el Proyecto de Reparcelación del Sector Residencial Zaldú, el cual ha sido redactado por D. José Luis Cueto Bulnes, se expone al público por plazo de (15) QUINCE DÍAS, contados a partir del siguiente al de la aparición de este Anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia, con el fin de que pueda ser examinado en los Servicios Técnicos del Ayuntamiento y formularse las alegaciones que se consideren pertinentes.

Sopelana, 24 de julio de 2001
EL ALCALDE

IRAGARKIA

Udal honetako Gobernu Batzordeak, 2001eko uztailaren 13an egindako bileran hasierako onarturik Zaldú Bizitoki Sektorearen Birsailkaketa Egitasmoa, Jose Luis Cueto Bulnesek idatzia, jendaurrean jartzen da HAMABOST (1) EGUNEKO epean, iragarki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatuta, Udal txeko honetako zerbitzu teknikoaren bulegoan aztertuta ahal izateko eta bidezko emandako alegazioak egin daitezkeen.

Sopelana, 2001eko uztailaren 24a
ALKATEA

Ordiziako Udala

EDIKTUA

2001eko abuztuaren 3ko Alkatetzaren 673. Dekretuz onartu zen, hasiera batean, A.I.U. "1 - Herrigunea"ko "B 11/12" Exekuzio Unitateko Konpentsazio Proiektua. Proiektu hori, EDERRENA Goiherrialdea S.L.-k eskatuta, Iñigo Arrutik, Francisco Gargallok eta Jose Luis Brionesek idatzi dutela.

Hau dela eta, Proiektu hori eta dagokion espediente Udal txeko honetako Idazkaritzan egongo da ikusgai, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost egunetan, doakienek aztertuta eta egoki deritzoten ohar eta alegazioak aurkez ditzaten.

Ordizia, 2001eko abuztuaren 3a.
ALKATEA,

Villabonako Udala

IRAGARKIA

Iragarki hau bide, Altzin 2 - Hiriguneari dagokionean, J. Yeregui arkitektoak eta M. Yeregui abokatuak idatzitako Villabonako udalerriaren Planeamendurako Arau Ordezkatzaileen al-daketa puntualaren Aurrerapenaren edukia jendau-rrean jartzen da, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik zenbatzen hasita eta 30 eguneko epean, horren edukiri buruzko iradokizunak edo oharak egin daitezkeen.

Aipatu aldatetaren Aurre-rapena, udaletxean dauden bulego orokorretan aztertuta ahal izango da epe horretan.

Villabonan, 2001eko abuztuaren 6an
ALKATEAK,
Izp.: Maixabel Arrieta Galarra

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak diruz lagundutako egunkaria